



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

GURE AITA

C SAIOA

ETXEAN, FAMILIAN EGITEKO

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza



1. Helburua

- Jainkoa, maite gaituen eta Berarekin hartu-eman izateko bidea erakusten digun Aita bezala ikusi, Jesusen bidez.

2. Helburu Bereziak

- Jesusek Jainko Aitarekin duen konfiantzazko hartu-eman estuaz jabetu.
- Otoitzak Jesusentzat duen garrantzia ezagutu.
- Aitagurearekin otoitz egiten ikasi.
- Jainkoa denok maitatu eta zaindu egiten gaituen Aita dela jakin eta horren aurrean esker oneko agertu.
- Gure Aita kristau guztiok batzen gaituen otoitza dela jakin.

3. Saioak

- C saioa, etxean, familian egiteko.

4. Aurkituko Duzuna

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saioaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

C. SAIOA ETEXEAN, FAMILIAN EGITEKO



Motibazioa

- Aita den Jainkoak be gustuko du gure bizitzaren, ilusioen, beldurren, akatsen... berri izatea, maite gaituelako eta lagun egiten digulako.



Azpimarrak

- Zer moduz eguna? Norekin egon zara? Zer egin duzu? Zer ikasi duzu? Ondo ibili zara?... Galdera hauek egiten dizkiegu seme-alabei ikastetxetik bueltatzen direnean edo egunaren amaieran...
- Jainkoak ere gure bizitzaren berri izan nahi du.



Idea nagusiak


- Aitagureak batu egiten gaitu, aita, ama eta seme-alabok Aita bera dugu.
- Jainkoa maite gaituen, gutaz arduratzen den eta gure berri izan nahi duen Aita ona da.
- Beti dugu Jainkoarekin hitz egiteko aukera eta Gure Aita otoitzak horretan laguntzen digu.



Saioaren garapena begi-kolpe batean

Jainkoaren Hitza, txatal argitzailea

"Jauna, irakats iezaguzu otoitz egiten".



"Tu Primera Biblia", Edebe, 392 - 393 or.

Bideoak

**Bideoa ikusteko,
klik egin irudian**



<https://www.youtube.com/watch?v=E3A4mReioQ4>

"Otoitz egitea, Jainkoarekin hitz egitea da",
Ayi eta bere adiskideak

Jarduera, "Otoitzaren Esperientzia"

- Marraztu zure otoitza. Idatzi gaur Jainko Aitari kontatu nahi diozuna.



Bilketa eta laburpena egiteko proposamena

- Ohearen ondoan itsatsi edo ipiniko dugu katekesian emandako Gure Aita otoitza eta marraztu/idatzi dugun otoitza.
- Otoitz laburra: Gure Aita otoitza irakurri.



Saiorako gida

Familiarentzat...



Lehen unea. Argibideak etxean elkarrizketan jarduteko.

- Guraso eta haurrok parrokian egin duguna batera jarriko dugu. Zer egin genuen? Nola sentitu ginen? Zer gustatu zitzaigun? Zer kostatu zitzaigun?
- Une honetan, etxean, "Tu primera Biblia" delako 392-393 orrialdeak edo Lk 11, 1-4 txatala irakurriko dugu.
- Parrokian, katekesiko saioan Gure Aita otoitzari buruz esan genuena gogoratuko dugu.
- Seme-alabak etxera bueltatzen direnean edo egunaren amaieran zer jakin nahi izaten dugun azaldu:
 - Zer moduz eguna? Egongo zen gauza onik, ezta? Eta, txarririk?
 - Gure gauzak norbaiti kontatzen dizkiogunean, geure bizitzako kide egiten dugu, gertatzen eta sentitzen duguna azaltzen diogu.
 - Beraz, Jainkoari dei egingo diogu gure bizitzan sar dadin. Maite gaitu eta baita ezagutu ere, baina atea noiz zabalduko diogun zain dago sartzeko.
 - Zer kontatu nahi diogu gaur Jainkoari?



Bigarren unea. Etxean egin eta katekesiko hurrengo saiora eramateko jarduera.

- "Otoitz egitea, Jainkoarekin hitz egitea da" bideoa, Ayi eta bere adiskideena, ikusiko dugu elkarrekin.
- Gure gaurko otoitza, Jainko Aitari kontatu nahi dioguna islatuko duen marrazkia egingo dugu.

**Bideoa ikusteko,
klik egin irudian.**



Hirugarren unea. Otoitzaldia familian.

- **0 urratsa**, "Denok batera gauden eguneko unea aurkitu". Zaila izan daiteke, baina seguru egunean edo astean 10-15 minutu geuretzat hartzeko gauza garena...
- **Lehen urratsa**, "Musika apur bat". Etxeko traste zaratatsu guztiak itzali eta lasaitzen, baretzen lagunduko digun musika jarri.
- **Bigarren urratsa**, "Isilunea". Etxeko zarata guztiak itzali, elkarrekin isiltasuna edo dena itzaltzen denean entzuten dena, 'entzuteko'.
- **Hirugarren urratsa**, "Geure barrura begiratu". Nola sentitzen garen arakatu: pozik, triste, baikor, ezkor, amorratuta, esker oneko..., eta batera jarri.
- **Laugarren urratsa**, "Zerrenda". Familiako kide bakoitzak egunean gertatutako bi gauza positibo eta negatibo bat pentsatuko ditu, eta batera jarriko du gainerakoen aurrean.
- **Bosgarren urratsa**, "Jainkoari kontatuko diogu". Jainkoari eskerrak emango dizkiogu eguneko sentipen positiboengatik eta bizi izandako gauza onengatik. Egoera negatiboetatik ikasten lagun diezagula eskatuko diogu eta zergatik sentitzen garen gaizki aztertzen eta egoera hori gainditzeko.
- **Seigarren urratsa**, "Arnasa hartu". Isiltasuna "entzungo" dugu berriz ere. Arnasa hartu eta berrik lanari ekingo diogu.

Denbora hustu, pentsatu eta barrura begiratu,... baliagarri dira Jainkoarengan pentsatzeko. Nazareteko Jesusen Jainkoarekin bat egin ondoren, bizitza, eguneroko kontuak, beti dira desberdinak.